



ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA
OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

Euskadin etxebizitza eskuratzeari buruzko txostena, genero- ikuspegitik

2023ko urtarrila



Aurkibidea

1. Etxebizitza eskuratzeari eragiten dioten joera demografikoak	4
2. Enpleguaren eragina etxebizitza eskuratzean	7
3. Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra EAEko emakumeen artean	10
4. Etxebizitza babestua	12
4.1. Etxebizitza babestuaren eskaria EAEko emakumeen artean	12
4.2. Etxebizitza babestua eskuratzeko EAEko emakumeen artean	14
5. Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa eta etxebizitza ordaintzeko prestazio-sistema	16
5.1. Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa EAEko emakumeen artean	16
5.2. Etxebizitzarako prestazio osagarria EAEko emakumeen artean	17
5.3. Gaztelagun programaren irismena EAEko emakume gazteen artean	18
5.4. Alokairu librea ordaintzeko Eusko Jaurlaritzak emandako COVID laguntzak eta alokairu babestua ordaintzeko salbuespenak	19
5.5. Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II akordioa	20
6. Ondorioak	21



Taulen Aurkibidea

1. taula.	Etxebizitza Eskuratzeko Eskubide Subjektiboa onartu dieten emakumeak 2021eko abenduan, eta guztizkoaren gaineko pisu erlatiboa	16
-----------	--	----

Grafikoen Aurkibidea

1. grafikoa.	Biztanleriaren bilakaera, sexuaren arabera. Euskadi. 2000-2021	4
2. grafikoa.	Euskadiko emakumeak, adin tartearen arabera. 2021 (biztanleria osoaren gaineko %)	4
3. grafikoa.	Jaiotza-tasaren bilakaera, 1.000 biztanleko. Euskadi. 1975-2021. Espainiako eta Europako datuak. 2020	5
4. grafikoa.	Bakarrik bizi diren pertsonak, adinaren eta sexuaren arabera. Guztira, pertsonak eta 2021ean bakarrik bizi ziren guztien gaineko %	6
5. grafikoa.	Langabezia-tasak Euskadin izandako bilakaera, sexuaren arabera. 2010-2021	7
6. grafikoa.	Gizonen eta emakumeen batez besteko irabaziak, sektoreka, Euskadin. 2008-2020	8
7. grafikoa.	Biztanleria okupatua, lanaldi motaren eta sexuaren arabera. 2020. Pertsona kopurua (mila pertsona) eta pertsona okupatuen guztizkoaren gaineko %, lanaldi motaren arabera.	9
8. grafikoa.	Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urte arteko emakumeen eta gizonen bilakaera konparatua. 2017-2021	10
9. grafikoa.	Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urte arteko pertsonak, diru-sarreraren eta sexuaren arabera. 2019-2021. Pertsonak eta aldakuntza-tasak	10
10. grafikoa.	18-44 urte arteko pertsonen eskaria lehen etxebizitza eskuratzeko, diru-sarreraren eta sexuaren arabera. 2021	11
11. grafikoa.	Etxebizitza babestuen eskaeraren bilakaera, sexuaren arabera. 2016ko IVH-2019ko IVH*- . 2021eko IVH	12
12. grafikoa.	Eskaeren titularrak diren emakumeen pisu erlatiboa vs gizonen pisu erlatiboa, eskaera-erregimenaren arabera, urte bakoitzeko eskaera guztiekiko (2019,2020* eta 2021)	13
13. grafikoa.	Etxebiden egindako eskaerak, sexuaren arabera, 2021eko abenduaren 31n.	13
14. grafikoa.	Etxebizitza babestuen onarpenak 2019-2021 artean, eskuratzeko erregimenaren eta esleipendunen sexuaren arabera	14
15. grafikoa.	Etxebizitza babestua erosteko onarpena jaso duten emakumeen pisu erlatiboa, jabetza-erregimenaren arabera. 2019-2021	15
16. grafikoa.	Emakume onuradunak Lurralde Historikoaren eta erantzun-moduaren arabera, 2021ean. Pertsona guztiekiko ehunekoa	16
17. grafikoa.	Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren onuradunak Euskadin. 2020-2021	17
18. grafikoa.	Etxebizitzarako Prestazio Osagarria jasotzen duten emakumeen eta gizonen kopuruak 2020ko martxoaren eta 2021eko abenduaren artean izandako bilakaera	17
19. grafikoa.	Gaztelagun programak emandako laguntzen bilakaera. 2019-2021	18
20. grafikoa.	Gaztelagun programaren onuradunen banaketa, sexuaren arabera. 2020-2021	18
21. grafikoa.	Alokairu librea ordaintzeko Eusko Jaurlaritzak emandako COVID laguntzen eta alokairu babestua ordaintzeko salbuespenen onuradunak Euskadin. 2020-2021	19




1. Etxebizitza eskuratzeari eragiten dioten joera demografikoak

Azken bi hamarkadetako dinamika demografikoek erakusten dutenez, EAEko biztanleria modu progresiboan zahartzen ari da, immigrazioak ekarpen positiboa egin arren.

2021ean apur bat murriztu zen EAEko biztanleria, bai emakumeen artean, bai gizonen artean, COVIDaren inpaktuaren eraginez. **2021eko urtarrilaren 1ean 1.129.158 emakume zeuden errolatuta Euskadin, hau da, 6.600 pertsonakoa baino zerbait handiagoa izan zen murrizketa, 2020arekin alderatuta.**


1. grafikoa. Biztanleriaren bilakaera, sexuaren arabera. Euskadi. 2000-2021



Iturria: Eustat

EAEko biztanleriaren % 51,5 osatzen zuten emakumeek 2021ean. Emakumeen garrantzi erlatiboa % 50etik gorakoa da 50 urtetik gorakoen artean, eta % 61era iristen da 75 urtetik gorako taldean, gizonak baino bizi-itxaropen altuagoa baitute (batez beste, 86 urte, gizonak baino 6 urte gehiago). Joera horrek **hainbat ondorio konplexu sortzen ditu gizarte- eta etxebizitza-politikak kudeatzeko: bakarrik bizi diren emakume heldu gero eta gehiagori erantzuteko beharra, etxebizitzak ez daude behar adina egokituta pertsona horien behar espezifikoetara** (irisgarritasuna, birgaitze osoa, etab.).

2. grafikoa. Euskadiko emakumeak, adin tartearen arabera. 2021 (biztanleria osoaren gaineko %)




Iturria: Eustat



Jaiotza-tasa etengabe behera egiten ari da, eta hori da etxebizitza-politikari eragiten dion ezaugarri demografiko garrantzitsuenetako bat.

2021ean 6,5 jaiotza erregistratu ziren Euskadin 1.000 biztanleko, Estatuan baino sei hamarren gutxiago, eta EBko batezbestekoa baino 2,6 jaiotza (2020) gutxiago. Joera beherakorra da, argi eta garbi: 2010ean 1.000 biztanleko 9,7 jaiotzakoa zen adierazle hori eta, duela 40 urte, 1980an, 1.000 biztanleko 13,5 jaiotzakoa, gaur egungoaren bikoitza. Egiturazko joera horren ondorioz, **epe luzera, Euskadiko gazteek presio txikiagoa izango dute lehenengo etxebizitza eskuratzeko.**

3. grafikoa. Jaiotza-tasaren bilakaera, 1.000 biztanleko. Euskadi. 1975-2021. Espainiako eta Europako datuak. 2020





Iturria: EUSTAT. EAEko jaiotza-estatistikak, EIN eta EUROSTAT

Gero eta ohikoagoa da etxebizitza batean pertsona bakarra bizi, batez ere, emakumeen kasuan.

2021ean, guztira, 153 mila emakume bakarrik bizi ziren Euskadin Egoera horrek gehiago eragiten die emakumeei, gizonei baino. Izan ere, bakarrik bizi diren pertsonen % 56,9 emakumeak dira. **30 eta 60 urte arteko tartean txikiagoa da bakarrik bizi diren emakumeen ehunekoa.** Hori lotuta egon liteke emantzipatzeko gaitasun ekonomiko txikiagoa izatearekin. Datu esanguratsua da.. **Garrantzitsua da 60 urtetik aurrera bakarrik bizi diren emakumeen garrantzi erlatiboa bakarrik bizi diren pertsona guztien % 60tik gorakoa dela giaztatzea.**



4. grafikoa. Bakarrik bizi diren pertsonak, adinaren eta sexuaren arabera. Guztira, pertsonak eta 201ean bakarrik bizi ziren guztien gaineko %



Iturria: Eustat



2. Enpleguaren eragina etxebizitza eskuratzean

EAEko emakumeek zailtasun handiagoak dituzte etxebizitza eskuratzeko eta hura ordaintzeko; izan ere, lan-merkatuan egoera okerragoa dute.

Lan-merkatu sartzeko egoera askoz ere okerragoa izaten jarraitzen dute EAEko emakumeek. Lan egiteko adinean dauden emakumeen **jarduera-tasa** (% 52) **txikiagoa** da gizonena baino (% 61), eta hori da **alderik nabarmenena**. Alde hori murrizten ari da azken urteetan (emakumeen jarduera-tasa % 48koa zen 2010ean), baina **oraindik ere eragin negatiboa izaten jarraitzen du emakumeen emantzipatzeko aukeren gainean**.


ABEEEak aplikatzeari esker, arindu egin dira pandemiaren eraginak. 2021ean, COVIDagatiko jarduera-murrizketak kendu ostean, normalizatzen joan zen enplegua. **Emakumeen arteko langabezia-tasa biztanleria aktiboaren % 10,2koa zen 2021ean: 2010az geroztiko erregistrorik onena.**

COVIDaren krisiaren ondoren hobetu egin da egoera ekonomikoa eta, hortaz, murriztu egin da langabezia. Dena den, gutxiago murriztu da emakumeen artean.


Dena den, gizonekin alderatuta, oraindik ere alde negatiboa dago langabeziari dagokionez. Alde hori 4 hamarrenekoa izan zen 2021ean (emakumeen artean % 10,2 eta gizonen artean % 9,8). Horrela, 2020arekin alderatuta, enplegua hobetzeak mesede txikiagoa egin die emakumeei gizonen baino.

5. grafikoa. Langabezia-tasak Euskadin izandako bilakaera, sexuaren arabera. 2010-2021

Jarduera-tasa



Langabezia-tasa



Iturria: BJA Eustat




Soldata-arrakala handia dago oraindik ere, soldatapeko emakumeen kaltetan


Alderik handienak soldatan ikusten dira. **Euskadiko soldatapeko emakumeek kobratzen duten batez besteko soldata gizonena baino nabarmen txikiagoa da.** EINEk eskuragarri dituen 2020ko azken datuen arabera, **batez beste, urteko 6.000 euroko soldata-arrakala** dago soldatapeko gizonen batez besteko irabazien (33,4 mila euro urtean) eta soldatapeko emakumeen batez besteko irabazien (27,1 mila euro urtean) artean. **Alde negatibo hori urteko 1.000 euro baino ez da murriztu 2008tik.**

6. grafikoa. Gizonen eta emakumeen batez besteko irabaziak, sektoreka, Euskadin. 2008-2020


Euskadi guztira



Industria



Zerbitzuak




Iturria: EIN



Soldata-arrakala horretan gehien eragiten duen alderdietako bat honako hau da: **lanaldi partzialak intzidentzia nabarmen handiagoa du soldatapeko emakumeena artean**. Izan ere, askotan nahi gabe onartu behar izaten dute lanaldi partziala, edo familiako bizitza uztartzeko beharrak bultzatuta. Hala, Emakundek aldian behin argitaratzen dituen txostenetan ikus daitekeen moduan, EAEko emakumeek etxeko lanetara bideratzen dute haien denboraren zati handi bat, gizonek baino gehiago, eta horrek modu negatiboan eragiten dio haien ibilbide profesionalari.

7. grafikoa. Biztanleria okupatua, lanaldi motaren eta sexuaren arabera. 2020. Pertsona kopurua (mila pertsona) eta pertsona okupatuen guztizkoaren gaineko %, lanaldi motaren arabera.



Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta




3. Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra EAEko emakumeen artean

Lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra duten emakumeen kopurua % 4,4 hazi da eta dagoeneko 30.500 baino gehiago dira; behar hori duten gizonen kopurua, aldiz, % 3,3 murriztu da.

Lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra zutela adierazi zuten 30.556 emakumek 2021eko udazkenean. Horrek esan nahi du % 4,4 hazi dela kopuru hori 2019ko aldi berarekin alderatua, Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko Inkestak orain dela gutxi argitaratutako datuetan ikus daitekeenez.


Bestalde, lehen etxebizitza eskuratzeko beharra dutela adierazi duten gizonen kopurua % 3,3 murriztu da 2019arekiko. Termino absolutuetan, oraindik ere gehiago dira behar hori adierazten duten gizonak (34.302), emakumeak baino (30.556).

8. grafikoa. Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urte arteko emakumeen eta gizonen bilakaera konparatua. 2017-2021



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila.

9. grafikoa. Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urte arteko pertsonak, diru-sarreraren eta sexuaren arabera. 2019-2021. Pertsonak eta aldakuntza-tasak



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila.




2020ko krisiaren ondorioz, nabarmen murriztu da etxebizitza bat eskuratzeko behar adinako diru-sarrerak dituzten emakumeen kopurua.

Covid krisiak ageriko inpaktua izan du etxebizitza bat eskuratzeko beharra duen emantzipatu gabeko biztanle talde honen egoera ekonomikoan. Hala, behar horri erantzun eraginkorra eman ahal izateko nahikoa diru-sarrera dituzten emakumeen kopurura %13 murriztu da. Gizonen kasuan, jaitsiera handiagoa izan da (-%30).

Bilakaera horren emaitza gisa, 2021ean emakumeen %73,9k adierazi zuten ez zutela behar hori asetzeko adinako diru-sarrerarik. Emakumeen ehunekoa gizonena baino ehuneko ia 4 puntu handiagoa zen, hortaz, agerian geratzen da emakumeen egoera okerragoa dela.

Lehen etxebizitza erosteko beharra duten lau emakumetik bakarrak ditu behar horri erantzun ahal izateko adina diru-sarrera.

10. grafikoa. 18-44 urte arteko pertsonen eskaria lehen etxebizitza eskuratzeko, diru-sarreraren eta sexuaren arabera. 2021.



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila.


4. Etxebizitza babestua

4.1. Etxebizitza babestuaren eskaria EAEko emakumeen artean

Emakumeen artean indarrez handitzen jarraitu zuen etxebizitza babestuaren eskariak 2021ean.

Etxebiden titular gisa inskribatutako emakumeek egiten zituzten eskaeren kopuruak gorakada handia izaten jarraitu du 2021ean, bai alokairu-erregimenean (+% 10), bai erosketa-erregimenean (+% 23), bai gizonen kasuan ikusitakoaren antzeko tasetan. Nolanahi ere, aipatzekoa da emakumeen alokairu-eskaria nagusi dela erosketen aldean, eta 2021ean 2.410 eskaera gehiago egin dira 2019aren aldean, erosketaren kasuan izandako gorakadaren gainetik (+1.384 eskaera).

11. grafikoa. Etxebizitza babestuen eskaeraren bilakaera, sexuaren arabera. 2016ko IVH-2019ko IVH*-.




* titular gisa emakume bat bakarrik edo gizon bat bakarrik duten eskaerak
Iturria: Etxebide

Etxebiden izena emandako emakumeen garrantzi erlatiboa ere igo egin da, batez ere, alokairu babestuaren erregimenean

2021ean, **Etxebiden egindako alokairu-eskaeren % 44tan emakume bat bakarrik zen eskaeraren titularra**, gizonen kasuan baino 10 puntu gehiago (% 34). Aldiz, erosketa-erregimeneko eskaeraren kasuan, emakumeen eta gizonen pisu erlatiboaren artean ez dago ia alderik. **Alokairu-eskaeraren intzidentzia emakumeen artean handiagoa izatea bat dator emakumeen egoera ekonomikoa okerragoa izatearekin, eta etxebizitza bat arrazoizko prezio batean eskuratzeko duten zailtasun handiagoarekin.**


12. grafikoa. Eskaeren titularrak diren emakumeen pisu erlatiboa vs gizonen pisu erlatiboa, eskaera-erregimenaren arabera, urte bakoitzeko eskaera guztiekiko (2019, 2020* eta 2021).




* titular gisa emakume bat bakarrik edo gizon bat bakarrik duten eskaerak. Gainerako eskaeretan bi sexuak dira titularrak.
Iturria: Etxebide

Etxebiden izena emandako emakumeen alokairu babesturako eskaeraren pisu erlatiboa handiagoa da gizonen eskaeraren pisua baino, **hiru lurraldeetan**. Dena den, emakumeek egindako eskaeraren pisua handiagoa da Gipuzkoan eta Bizkaian, Araban baino; azken horretan txikiagoa da aldea.


13. grafikoa. Etxebiden egindako eskaerak, sexuaren arabera, 2021eko abenduaren 31n.




Erosketa




Alokairua



Erosketa



Alokairua




Iturria: Etxebide

4.2. Etxebizitza babestua eskuratzea EAEko emakumeen artean

2021ean jarraitu egin zuen Covid-19aren krisiaren inpaktuak, eta etxebizitza babestua eskuratu zuten emakumeen kopurua txikiagoa izan zen 2019koa baino.

2021ean onartutako etxebizitza babestuen kontratu guztien artean, 2.211 kontratutan emakumea zen titular bakarra. Zifra hori % 9,6 murriztu da 2020arekiko.

14. grafikoa. Etxebizitza babestuen onarpenak 2019-2021 artean, eskuratzeko erregimenaren eta esleipendunaren sexuaren arabera



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren informazioan oinarrituta kalkulaturako datuak.


2021ean areagotu egin ziren alokairuko etxebizitza babestuak eskuratu zituzten emakumeak, baina gutxitu egin zen etxebizitza babestua erosi zutenen kopurua.

Hortaz, 2020an baino emakume gutxiagok eskuratu zuten etxebizitza babestua. **Alokairuko etxebizitzak eskuratzeko kasuan izandako hobekuntza izan da salbuespena, onarpenak %10 hazi baitziren.** Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzak urteak daramatza baliabide gutxi dituzten pertsonen etxebizitza eskuratzeko errazteko estrategia garatzen, eta, horretarako, alokairu babestuaren aldeko apustua egin du. **Eusko Jaurlaritzaren 2021-2023 aldirako Etxebizitza Gida Planak estrategia horrekin jarraitzen du eta arrazoizko prezioa duen alokairua sustatzeko ahalegina egiten du. Horrek mesede egin behar lieke emakumeei datozen urteetan.**

2020an hobetu egin zen etxebizitza babestua eskuratu zuten emakumeen pisu erlatiboa, gizonen pisuarekin alderatuta.

2021ean emakumeak izan dira alokairuko etxebizitza babestua eskuratu duten gehienak; hala, kontratuetan ageri diren pertsonen % 58,9 dira emakumeak, 2020ko maila bera. Alokairuko etxebizitza babestu gehiago eskuratu izana lotuta dago Etxebiden izena emandako emakumeen presentzia handitu izanarekin. Aldiz, etxebizitza babestua erosteko onarpena jaso duten emakumeen pisu erlatiboa % 45era jaitsi da: 2020an baino sei puntu gutxiago.

15. grafikoa. Etxebizitza babestua erosteko onarpena jaso duten emakumeen pisu erlatiboa, jabetza-erregimenaren arabera. 2019-2021



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren informazioan oinarrituta kalkulaturako datuak.



5. Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa eta etxebizitza ordaintzeko prestazio-sistema

5.1. Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa EAEko emakumeen artean

Etxebizitza Eskuratzeko Eskubide Subjektiboa onartzen du Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legeak. 2016az geroztik martxan jarri ziren Etxebiden izena emanda egon behar duten onuradun potentzialen artean eskubide hori formalizatzeko eta ezarritako gehieneko errenta mailak izateko mekanismoak. Eskubide subjektibo hori onartzearen ondorioz, etxebizitza bat esleitu daiteke alokairu-erregimenean, edo, etxebizitzarik eskuragarri ez badago, Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa eskura daiteke.

2021aren amaieran, Euskadin, 6.357 pertsonak zuten Etxebizitza Eskuratzeko Eskubide Subjektiboa onartuta, eta horietako hirutik bi emakumeak ziren.

2021ean, Euskadin Etxebizitza Eskuratzeko Eskubide Subjektiboa onartuta zuten 6.357 pertsona erregistratu ziren; horietatik 4.055 emakumeak ziren, hau da, eskubidea onartuta zuten pertsonen % 64. Eskubide hori egikaritzeari esker, 790 emakumek Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa jasotzen dute dagoeneko (prestazio hori jasotzen duten pertsonen % 68) eta 998 emakumeri babes publikoko etxebizitza esleitu diete (Etxebizitza Eskuratzeko Eskubide Subjektiboa onartu izanagatik esleipendun suertatu diren pertsonen % 58); hortaz, esleipenak nabarmen hazi dira 2020tik, orduan 687 esleipen izan baitziren.

Etxebizitza Eskuratzeko Eskubide Subjektiboa onartu dieten gainerako emakumeek lehentasuna izango dute etorkizunean etxebizitza babestua esleitzeko orduan.

1. taula. Etxebizitza Eskuratzeko Eskubide Subjektiboa onartu dieten emakumeak 2021eko abenduan, eta guztizkoaren gaineko pisu erlatiboa

Lurraldea	Esleitzeko lehentasuna	EPE	Etxebizitza-esleipena	Guztira, orokorra
Araba	407	56	217	680
Bizkaia	1.661	598	535	2.794
Gipuzkoa	199	136	246	581
Guztira	2.267	790	998	4.055
Araba	% 55	% 54	% 48	% 52
Bizkaia	% 69	% 73	% 65	% 69
Gipuzkoa	% 56	% 59	% 58	% 58
Guztira	% 65	% 68	% 58	% 64

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila.

16. grafikoa. Emakume onuradunak Lurralde Historikoaren eta erantzun-moduaren arabera, 2021ean. Pertsona guztiekiko ehunekoa



5.2. Etxebizitzarako Prestazio Osagarria EAEko emakumeen artean

2021eko abenduan 13.404 emakume agertzen ziren Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren onuradun gisa. Onuradunen % 53,7 dira, 2020ko mailaren oso antzekoa (% 54,6). Alokairu librea ordaintzen laguntzen die prestazio honek egoera txarrean dauden pertsona eta familiei. **Hala, berriz ere argi geratzen da emakumeek zailtasun handiagoa dutela alokairuko etxebizitza ordaintzeko;** kasu honetan, etxebizitza-bazterkeriatik gertu.

17. grafikoa. Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren onuradunak Euskadin. 2020-2021

2020

2021




Iturria: Lanbide

COVIDaren ondoren hobetu egin zen egoera ekonomikoa eta, ondorioz, 2021ean murriztu egin ziren Etxebizitzarako Prestazio Osagarria jaso zuten onuradunak.

Pandemiaren ostean EAEko ekonomia hobetu izanak aukera eman du Etxebizitzarako Prestazio Osagarria jasotzen duten pertsonen kopurua murrizteko. **Hala, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria jasotzen zuten emakumeen kopurua % 5 murriztu zen 2021ean, 13.404 emakumera arte. Hortaz, gizonek baino bilakaera positiboagoa izan zuten,** gizonen artean %1,5 murriztu baitzen Etxebizitzarako Prestazio Osagarria jasotzen zutenen kopurua

18. grafikoa. Etxebizitzarako Prestazio Osagarria jasotzen duten emakumeen eta gizonen kopuruak 2020ko martxoaren eta 2021eko abenduaren artean izandako bilakaera.




Iturria: Lanbide



5.3. Gaztelagun programaren estaldura eta EAEko emakume gazteak

Dagoeneko, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-politikaren baitako egiturazko programa bilakatu da Gaztelagun programa. Alokairu librean bizi diren pertsona gazte askori ematen die estaldura, hilean 275 euro ordainduta. **2021ean ia 2.500 pertsona (2.469) ziren onuradunak eta nabarmen hazi zen estaldura, 2020arekin alderatuta;** orduan, 1.800 emakume gazte ziren onuradunak.


19. grafikoa. Gaztelagun programak emandako laguntzen bilakaera. 2019-2021



Martxan jarri zenetik, EAEko emakume gazteak izan dira Gaztelagun programaren onuradun nagusiak.

Gaztelagun programaren onuradunen % 61 emakumeak dira, eta % 39 gizonak. Hiru lurraldeetan, gehiengoa dira laguntza hauen onuradunen artean. Gipuzkoan onuradunen % 63 dira emakumeak, eta, Bizkaian, % 59.

20. grafikoa. Gaztelagun programaren onuradunen banaketa, sexuaren arabera. 2020-2021



5.4. Alokairu librea ordaintzeko Eusko Jaurlaritzak emandako COVID laguntzak eta alokairu babestua ordaintzeko salbuespenak

Euskadin alokairu librean bizi ziren familietan krisiaren eragina arintzeko helburuz, Eusko Jaurlaritzak laguntza batzuk jarri zituen martxan. Horien artean, honako hauek nabarmentzen dira: alokairu librea ordaintzeko laguntzak eta etxebizitza babestuen parkean alokairuan bizi ziren pertsonak alokairu babestuko errenta ordaintzetik salbuestea.


COVIDaren krisiaren ondorioz lan-jardueran inpaktua jasan zuten pertsona langileek osatzen zituzten familia horiek; ez ziren laguntzen eta prestazio sozialen ohiko onuradunak. Hortaz, egoera horretan zeuden hilabeteetan zehar alokairuko etxebizitza ordaintzen jarraitzen laguntzea zen helburua.

Guztira, 9.222 pertsona agertzen dira laguntzak jaso dituzten alokairu libreko kontratuen titular gisa; horietatik 4.192, onuradunen % 45,5, alokairu libreko etxebizitza batean bizi ziren emakumeak ziren.


Gainera, etxebizitza babestuaren parkeko alokairu-kontratuen 1.393 titularrek jaso dute Eusko Jaurlaritzaren salbuespena. Kasu honetan, gehienak emakumeak izan dira, % 57.

21. grafikoa. Alokairu librea ordaintzeko Eusko Jaurlaritzak emandako COVID laguntzen eta alokairu babestua ordaintzeko salbuespenen onuradunak Euskadin. 2020-2021

Alokairu librea ordaintzeko laguntzak



Alokairu babestua ordaintzeko salbuespenak



**Datuak bat datoz titularrekin, hortaz, ez dute zertan bat etorri laguntza kopuruarekin*

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila



5.5. Etxeko tratatu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. akordioa

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak, duela urte batzuetatik, etxebizitza arlotik tratatu txarrak eta indarkeria sexuala jasan duten emakume biktimei laguntzera bideratutako berariazko tratamendua eta arreta ditu txertatuta haren etxebizitza-politikan.

Arreta-politika horrek 2021ean izandako emaitzak honako adierazleen bidez zehaztu daitezke:

a. Etxebide Etxebizitza babestuaren eskariak

- Genero-indarkeriaren biktimak ziren 1.127 emakume agertzen ziren Etxebideren Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan, alta egoeran. Horietatik, 214 eskari berriak ziren.

b. Etxebizitza babestuaren esleipenak

- Genero-indarkeriaren biktimak ziren 170 emakumeri eta haien seme-alabei babes publikoko etxebizitza bat edo baliokideren bat esleitu zieten 2021ean.
- Esleipen, baremazio eta lehentasunezko kupoen prozedura arruntaren bidez, 117 etxebizitza esleitu zaizkie genero-indarkeriaren biktimak izan diren emakumeei. Eta, aparteko prozeduraren edo zuzeneko esleipenaren bidez, 53 esleitu dira.

6. Ondorioak

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailburuordetzak, Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren bidez, etxebizitza babestua eskuratzeko orduan eta programa eta prestazio publikoetan parte hartzeko orduan ekitatea eta berdintasuna bermatzen duten politikak garatzeko konpromisoa du, indarrean dagoen Etxebizitza Gida Planak (2021-2023) jasotzen duen moduan, eta konpromiso horri erantzuten dio txosten honek.

Azken urteetan egoera hobetu bada ere, Euskadiko emakumeen egoera sozioekonomikoa ez da ona, eta oraindik ere gizonek baino zailtasun handiagoak dituzte lan-merkatura kalitatezko enplegu batekin sartzeko. Egoera horrek zaildu egiten du haien independentzia ekonomikoa, etxebizitza libre bat eskuratzeko eta/edo alokairuko edo erositako etxebizitza baten ordainketari haien baliabide propioekin aurre egiteko.

2021eko txostenaren emaitzek berriro ere baieztatu dute egoera hori. Lan egiteko adinean dauden emakumeen jarduera-tasa gizonena baino ehuneko 8 zortzi puntu beherago dago. Langabezia-tasa murriztu egin da eta gizonen langabezia-tasara hurbildu da, baina soldatapeko emakumeen soldata gizonena baino 6.000 euro baxuagoa da. Alde hori 1.000 euro baino ez da murriztu azken hamar urteetan.

Euskadiko etxebizitza-politika egoera hori arintzen saiatzen da Etxebizitza Sailburuordetzak diseinatzen eta aplikatzen dituen sistemen eta prozeduren bidez, etxebizitza babestua eskuratzeko orduan tratu-berdintasuna bermatzeko, eta Etxebizitza Eskuratzeko Eskubide Subjektiboa bermatzeko. Prozedura horiek mesede egiten diete emakumeei:

- Zuzenean: muturreko egoerak bizi dituztenean (genero-indarkeriaren biktimak), etxebizitza babestua eskuratzeko lehentasun-sistemen bidez.
- Zeharka: modu inplizituan emakumeei mesede egiten dieten mekanismo orokorren bidez, esaterako, alokairuko etxebizitza babestua eskuratzeko baremazioaren bidez. Izan ere, baremazioak etxebizitza eskuratzeari errazten die diru-sarrerara gutxien dituzten pertsona eta familia-unitateei; horiek, gehienbat, emakumeak izaten dira.

Hala, Etxebiden titular gisa izena emanda dauden emakumeen eskaera kopuruak igoera handia izan zuen 2021ean ere. 26.000 emakumek baino gehiagok eskatu zuten babestutako alokairua (2020arekiko +%10), eta 7.000 emakumek baino gehiagok egin zuten erosteko eskaera 2021ean; bereziki hazi zen azken horien kopurua (+%23).

Orain dela gutxi argitaratutako Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko Inkestak baieztatu duenez, emantzipatu gabe dauden eta lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra duten emakumeen egoera okertu egin da. 2021ean 30.556 emakumek zuten behar hori, 2019an baino % 4 gehiagok, eta lautik batek bakarrik adierazi zuen (7.983 emakume) behar horri erantzuteko adinako diru-sarrerak zituela.

2021eko egoerak, pandemiaren inpaktua zela eta, apur bat moteldu zuen etxebizitza babestua eskuratzeko erritmoa. Etxebizitza babestuak alokatzeko eta erosteko kontratuen 2.221 onarpenetan emakumeak agertzen ziren titular gisa; kopuru hori % 9,6 murriztu zen 2020arekiko. Alokairu babestuko kontratu horietan agertzen diren pertsonen % 58,9 emakumeak dira: 2020ko mailaren antzekoa.

Dena den, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak, etxebizitza arlotik tratatu txarrak eta indarkeria sexuala jasan duten emakume biktimei laguntzera bideratutako berariazko tratamendua eta arreta ditu txertatuta haren etxebizitza-politikan. Horren emaitza zehatz gisa, genero-indarkeriaren biktimak ziren 170 emakumeri eta haien seme-alabei babes publikoko etxebizitza bat edo baliokideren bat esleitu zieten 2021ean.

Gainera, EAEko etxebizitza-politika aurrerapausoak ematen ari da emakumeen hainbat kolektibori alokairua ordaintzeko, egituraz eta modu egonkorrean. Etxebizitza Eskuratzeko Eskubide Subjektiboa bultzatzeari esker, emakume askok etxebizitza babestu bat eskura dezakete, etxebizitza eskuratzeko lehentasuna aitortu edo alokairu librea ordaintzeko prestazio bat jaso dezakete. 2021ean, Euskadin Etxebizitza Eskuratzeko Eskubide Subjektiboa onartuta zuten 6.357 pertsona erregistratu ziren; horietatik 4.055 emakumeak ziren, hau da, eskubidea onartuta zuten pertsonen % 64.

Halaber, 36 urtetik beherako gazteei zuzendutako Gaztelagun programa Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-politikaren egiturazko programa bilakatu da, 2021-2023 aldirako Etxebizitza Gida Planaren esparruan; 2.469 onuradun izan zituen programak 2021ean.

Etxebizitzarako Prestazio Osagarriak (Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoaren barruan txertatzeko zain daude) jarraitzen du izaten alokairu librean bizi diren eta egoera txarrean dauden emakumeei babes handiena eskaintzen dien prestazioa. 2021eko abenduan 13.404 emakume onuradun erregistratu ziren, 2020an baino % 5 gutxiago.

Horrez gain, pandemiaren inpaktua arintzeko ahaleginaren baitan, 2020 eta 2021 artean Eusko Jaurlaritzak alokairu librea ordaintzeko laguntzak eman zizkien 9.222 pertsonari; kontratu horien % 45,5ean emakumeak ziren titularrak. Era berean, alokairu babestuan bizi ziren 1.393 pertsona errenta ordaintzetik salbuetsi zituen; alokairu-kontratu horietako titularren % 57 emakumeak ziren.

Etorkizunera begira, etxebizitzak arrazoizko prezioan alokatzera egongo dira bideratuta 2021-2023 aldirako Etxebizitzaren Gida Planaren baliabideak, eta ez erostea bultzatzen duten politiketara; horrek mesede egiten die emakumeei. Nolanahi ere, erronka handia da, eta alokairu babestuko parke bat eraikitzea herrialdearen inbertsio gisa ulertzea esan nahi du, herrialdeari epe luzerako baliabide egonkorrak emateko; horixe proposatzen du Etxebizitzaren Aldeko Itun Soziala bikoiztearen helburuak, 2036ra begira.

Halaber, alokairua ordaintzeko prestazio-sistema zabala indartzeko neurri batzuk ere txertatzen ditu 2021-2023 aldirako Etxebizitza Gida Planak. Emakumeei estaldura handiagoa ematea ahalbidetzen du horrek, honakoen bidez: Etxebizitza Eskuratzeko Eskubide Subjektiboa onartzea; Etxebizitzarako Prestazio Osagarria Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoaren barruan txertatzea, Etxebizitza Sailburuordetzak kudea dezan; edo Gaztelagun sendotzea eta egiturazko prestazioa bilakatzea, datozen urteetan mantenduko dena. Hori guztia euste-horma sendoa izango da etorkizuneko krisien inpaktu sozialaren aurrean, egoera okerreanean dauden pertsonak eta familiak babesteko; horien artean, emakumeak dira gehienak. 2023ko urtarilaren 1etik aurrera, alokairurako prestazioak hilean 275 eurotik 300 eurora igaroko dira.